

Maddi Aiestaran Iparragirre

A maila • 2 saria



Soka bakarraren bi muturrek batzen dituzte beldurra eta maitasuna. Eta ez da zeinahi soka: etengabe guztiok oinpean daramagun soka bat da; ordea, zaila egiten zaigu sokaren gainean burutzen dugun mugimendu bakoitzaren kontrola geuk izatea. Korronteak baldintzatzen duelako gure joera: beldurrerantz edo maitasunerantz.

Aholka nezake “heldu gogor sokari eta egin korronteari aurka, edo alde, oreka lortu arte”. Baina ez dut egingo. Batzuetan desoreka izaten baita bizipozaren oinarririk sendoena.

ISILTASUNA

Isiltasuna
orri zuri bat da.

Isilik egon nahi duenak
miretsi egiten du
zuritasuna.
Isilik dagoenak
zirriborratu egiten du
orriaren garbia.
Eta isilik bizi nahi duenak
mundu bat ikusten du
orri zuri batean.

Margoak gara
zuritasunaren,
hustasunaren,
ezerezaren
itsasoan.
Kolorerik gabeko
itsaso batean.
Guri dagokigu
olatu bakoitzaren
bitsetik
ortzi-mugaren
hitsera
kolorea
zabaltzea.

Guri,
margooi, dagokigu
kolorea jantzi
eta zuritasuna dastatzea,
mirestea,
zirriborratzea,
ikustea.
Zuritasunean
mundu bat ikustea.

Isiltasuna
orri zuri bat da.
Aske
hegan egitera
gidatzen gaituen
itsaso zuri bat.

Ba al da
margo batentzat
ezer
orri zuri bat baino
aberasgarriagorik?